

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko martxoak 11 • 163. zka.




Etxeko obra txikiak

Udal araudia ezagutzen

korrika
90k

25ean goizeko
4,40etan
Atxabaltan

Iturririk iturri: Adolfo Etxebarria ■ Iritzia: Ane Loidi ■ Kirolak: Jose Luis Eraña



ALMEN
IKASTOLA



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA



SAN VIATOR
IKASTOLA




umezaintza
HAIR - ESKOLA



HEZIBIDEko Ikastolen Aposta Batxilergo eta Heziketa Zikloetan

ere bai!



HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

Zatoz Informatzera!



Biteri Etorbidea, 15 behea
Tel: 943 79 88 75
20500 ARRASATE



Etxean obrak egiteko baimenik eskatu behar da? Norberak nahi duena egin dezake?

Gurutze Urrutia

(Langilea)

Ez dakit zein baimen mota den baina badakit baimen bat eskatu behar dela udaletxean.

Herriko etxeen itxura mantentzea ondo iruditzen zait baina kasu batzutan salbuespenak egin daitezkeela uste dut, on behar-rako bada behintzat aldaketa hori.



Andoni Romero

(Langilea)

Bai badakit eta jendeak ere badakiela uste dut.

Arau batzuk egotea ondo dago bakoitzak nahi duguna egin ez dezagun. Hor bizilagunen komunitateak zeresan haundia izan beharko luke denen artean erabakiak hartzeko.



Jon Arriola

(Langilea)

Bai, guk etxean obra bat egin genuen eta orduantxe enteratu nintzen.

Etxearen itxura asko aldatu ezean ez dut uste hain arau zorrotzak egon beharko liratekeenik fatxadak zaintzeko.



Cándida Conde

(Etxekoandrea)

Bai, obra haundia bada behintzat baimena eskatu beharra dago.

Aruak bete egin behar dira, norberak nahi duena eginez gero, gainera, oso etxe zatarrak izango genituzke herrian.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

BADATOR KORRIKA

Aurten ere, bi urte eta gero, badator berriz korrika. Martxoaren 19an Iruñean hasi eta martxoaren 28an bukatuko da Donostian. Atxabaltatik hilak 25ean goizeko 4,30ak inguruan pasatuko da, Arrasatetik Eskoriatzarako bidean.

Ordurik onena ez izan arren, atxabaltar guztiak takarraran egitera gonbidatzen ditugu. Ondoren izango den txokolatearekin neke guztiak pasatuko dira.

Honekin batera korrikak berarekin dakartzan aktibitate desberdinetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

1+1= hamaika, zu eta ni euskaraz

KORRIKA BATZORDEA

e s k u t i t z a



korrika



Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzalea:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigrif, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta

1999ko martxoak 11 3



Hiru gai aztergai ez-ohiko osoko bilkuran

Arau subsidiarioen dokumentuaren hasierako onarpena egin zen

Martxoaren leian, ez-ohiko osoko bilkura ospatu zen udaletxean hiru gai eztabaidatu eta onartzeko.


1.- Arau subsidiarioen dokumentuaren hasierako onarpena. Hala ere dokumentu honen berrikuspena egin ostean zenbait zuzenketa eta aldaketa burutu behar direla argi geratu eta onartu zen.

2.- Arritzeko S.L. eta Udalaren ar-

teko hitzarmena. 11-B zonaldeko, Santa Kurtz eta Durana kaleen artean dagoen luraren %22,64 Udalarena izanik, Arritzeko S.L. promotoreari ematea erabaki da. Lur hauen truke, bestalde, 180 m²ko azalera eraikia duen etxebizitza erabilerarako zatia gehi garaje kopuru bat emango dizkio Arritzekok Udalari. Eraikitako 180 m² horiek etxebizitza kopuru ze-

hatz batekin bat ez badatoz, falta den metroen aldea dirutan emango da, 190.000 pta. metro karratu bakoitze-ko oinarritzat harturik.

3.- Mailegu hipotekario baten kikapena. Herriko bikote batek Udalarekin zuen mailegua ordaindu duenez, mailegu hipotekario hau bukatutzat ematen duten eskriturak egitea erabaki du.



Udaletxeko ganbaran arau subsidiarioen planoak ikusgai alegazioak aurkezteko

Martxoaren leko osoko bilkuran arau subsidiarioei buruzko dokumentua onartu bazen ere, udaletxeak berak hainbat aldaketa eta zuzenketa proposatu ditu. Herritarrek ere aldaketa gehiago proposatzeko badute beren aukera, hilak 4an hasita hilabeteke epea baitago udaletxeko ganbaran planoak ikusi eta alegazioak aurkezteko. Arau subsidiarioei buruzko dokumentu hau kontsultatzeko bulego ordutegian pasa daiteke hirigintza sailetik; interes berezia izan eta hirigintzako teknikarien azalpenak nahi izanez gero, berriz, kontsulta ordutegia goizeko 11etatik ordu batetara eta

arratsaldeko 5etatik 6etara izango da.


Herritarrek aurkeztutako alegazio guztiak udaletxean aztertu ondoren, onartutakoekin, udaletxeak berak proposatutakoekin batera, dokumentua aldatu eta behin behineko onarpena egingo da, gero Foru Aldundira bidaltzeko. Honek begirada bat bota ostean Eusko Jaurlaritzari bidaliko dio eta bien artean araudia betetzen duten erabakiko dute.

Jose Mari Segovia teknikariaren esanetan oso garrantzitsua da herritarrek jaki-

naren gainean egon eta parte hartzea ondoren gaizki ulerturik eta kezarik egon ez dadin.



Herritarrek parte har dezaten nahi da udaletxean

 **Zenbaki**

Basabe
Industrialdea C Pab.
Aretxabaleta
 Tfnoak: 943 71 21 12
 943 71 22 68

Aholkularitza

Ofizientzia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
 Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
 Bertako okina

Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendiko batzarra

Aretxagazetak 7 urte beteko ditu martxoaren 12an

Martxoaren 26an, eguakotxa, Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi Elkarteak ohiko batzar

orokorra burutuko du. Bertan 1998-ari errepasua egingo zaio burututako ekintzen eta diru gastuen berri emana

txe zaharreko, Durana 11, aretoan.

Aretxagazetak 7 urte

Eguakotx honetan, martxoak 12, Aretxagazetak 7 urte beteko ditu. Egia da, ordea, lehenengo Aretxagazeta, hiruhilabetero ateratzen zen formato handiko aldizkari hura, zaharragoa dela. Oraingo Aretxagazeta honen lehenengo aletzat bestalde 1992ko martxoaren 12an kaleratutako aldizkari txikia hartu da, hamabostekari gisa orduan sortu baitzen.

Bertatik pasatako langile, kolaboratzaile eta batzordekideei eskerrak ematearekin batera, orain artean bezala aurrerantzean ere herritarren zerbitzura lan eginaz jarraituko dugula adierazi nahi dizuegu.



Poliki-poliki hobetuz joan da Aretxagazeta 7 urte hauetan

z eta 1999ko egitasmo eta aurrekontuak ere jakinaraziko dira. Era berean Aretxagazetako erredakzio batzorde erdiaren aldaketa ere burutuko da.

Aretxagazetako bazkide guztiei gure gonbidapena luzatu nahi diegu bertan parte har dezaten; lehenengo deialdia 6,30-etan izango da eta bigarrena 7etan udale-

Herriko plazako eraikuntza Kurtzebarri eskolarentzat

Urte hasierako lehenengo osoko bilkuran onartu bezala, udalak Herriko plaza 1-eko eraikuntza Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailari utzi dio, bertan Kurtzebarri eskolak DBHko klaseak eman ditzan. Momentu honetan eskolaurreko gela batzuk eta DBHko tailerrak badaude ere, hauek bertatik kendu eta beheko solairua udaletxearentzat geratuko da. Kurtzebarrik 1.solairutik gorako guztia erabili ahal izango du.

Alberto Iturberen hitzaldia

Kurtzebarri eskolako liburutegia txiki geratu zen, ehundaka pertsona bertaratu baitzen Alberto Iturberen

hitzaldira. Era guztietako galderak egin zitzaizkion medikuari eta erantzunekin moldatu behar izan zuen hitzaldia bi ordutan zehar. Zeintzuk diren osasun ona izateko klabeak? Albertoren esanetatik hauxe atera genezake: elikadura orekatua, deskantsua, ariketa fisikoa eta buru osasuna.

Munduko matematikari azkarrena

Datorren asteartean, hilak 16, munduko matematikari azkarrena, Jaime Gar-

cía kolonbiarra izango da Kurtzebarri eskolan. Bi saio egingo ditu gazteen aurrean, matematikak hobeto ulertu eta hauenganako zaletasuna sortarazteko asmoz.



Herritar ugari hurbildu zen Alberto Iturberen hitzaldira



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Aldaketak udaletxeko bulegoen antolamenduan

Ongizate saileko bulegoa udaletxeko 1. pisuan egotea aspaldi salatuak arazoa da. Bertara hurbiltzen ziren 3. adinekoek arazo ugari izaten zituzten eskailera luze eta txar haiek zeharkatzen eta azkenean aurkitu diote irtenbidea. Beheko solairura, idazkaria zegoen tokira, pasatu da ongizate saila eta idazkariaren bulegoa, berriz, gora eraman da. Sarreran oraindik maila batzuk geratu direnez, hauek zeharkatu ezin dituztenentzat, udaletxearen atzeko aldean igoera edo ranpa bat jarri da. Hiru gizarte laguntzaileak

oso pozik agertu dira aldaketa hauekin. Gogoratu, beraz, hemendik aurrera beheko solairuko korridore bukaeran, eskumatara, aurkituko dituzuela.

Harrera leihatila

Hilabete batzuk barru harrera leihatila berria aurkituko dugu udaletxe sarreran. Honen helburua herritarrei kalitatezko zerbitzua eskeintzea izango litzateke, gaur egungoa hobetuz. Lanak aurreratuta



Beheko solairuan aurkituko dugu ongizate saila

badaude ere, martxan jarri arte, oraindik itxaron beharra egongo da.

Ostegunean ospatuko da emakumearen eguna herrian

Astelehenean pasa zen urteroko data ezanguratsu hau eta herri askotan ekintza ugari burutu bazituzten ere Aretxabaletan, beranduxeago egingo da martxoaren 8a ospatzeko ekitaldia. Loramendi Euskara Elkartean barneratutako Trilek, emakumearen aisialdia euskaraz antolatzeko taldea izan arren, emakumearen egun hau ospatzeko kafe-terutia antolatu du ostegun honetarako. Beraien asmoa kanpotik norbait ekartzea bada ere, pelikula bat ikusi eta ondoren mahainguru bat egiteko, inor etorriko ez balitz gertu daude puntu batzuk ezarri eta sortuko litzatekeen el-karrizketa beraiek bideratzeko.

Jasone Gorroño Trileko kidearen esanetan "Loramendiko aretoan arratsaldeko 6ak inguruan burutuko dugun ekintza honetara herriko emakume guztiak gonbidatu nahi ditugu, deialdi zabala

egitea baita helburua".

Talde feministarik ez

Aretxabaletan ez dago talde feminista antolaturik, Tril ez baita emakumeen erreibindikazioak aurrera eramaten dituen talde bat, horregatik ekintza formalik ere ez zen antolatu astelehenean "Arrasateko emakumeek manifestaldirako egin zuten deialdian parte hartu genuen eta ondoren luntxera joan ginen batzuk baina ez talde bezala, pertsonalki baizik" dio Jasonek.

Emakumeen egoera aztertzean, argi dauka Jasonek oraindik lan handia dagoela egiteko gizonek dituzten eskubide mailara heltzeko. Heziketa arazoa ere badela dio eta hori norberaren etxean hasi behar den lana da, nahiz eta gero inguruak traba ugari jarri lan horretan.



Trilekoek, urtero bezala, pankarta jarri zuten plaza barrenean

Haizea taberna



Gustoko giroa

Mitarte, z/g •
ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 85 57

Martin

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tfnoa: 943 79 01 72

ESKORIATZA

Tfno 714345



MENDIOLA

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Bazkari
eta
afariak

Hirugarren edukiontzia laister kalean

Beira eta paperaz gain orain metalezko, plastikozko eta tetra brik ontziak jasoko dira

Herralde garatuok, inolako kontrolik gabe gero eta zabor gehiago sortzen ari garen heinean, birziklapena ekologisten gaia izatetik herritar guztion ardura izatera pasatu da. Hori dela eta Deba Garaiko Mankomunitateak edukiontzi horiei buruzko informazio kanpaina jarriko du martxan hile honetan.

Beira eta papera

Beira jasoteko edukiontzi berdeek eta paperarentzako ontzi urdinek bere denboratxoa daramate gure artean eta poliki-poliki gero eta herritar gehiago ikus daiteke bertara hurbiltzen. Mankomunitateak luzatutako datuei begiradaxo bat botaz gero, gure herrian urte batetik bestera jasotako bai beira bai paper kopuruak gora egin duela ikus daiteke. Hilabete bakoitzean jasotako datuak ez dira oso erregularrak eta bi kasuetan abendua da gehien

bildu den hilabetea.

Edukiontzi horiak

Hemendik aurrera hirugarren edukiontzi bat jarriko da lehenengo alboan metalezko (latak), plastikozko eta tetra brik ontziak jasoteko, kontenedore edo edukiontzi horiak. Tetra brik-ak tolestu egin beharko dira, plastikozko ontzietan tapak kendu behar zaizkie, ontziak hustu eta garbitzea gomendatzen da eta ontziak bata bestearen barruan ez dira sartu behar.

Deba Garaiko Mankomunitate mailan 127 jarriko dira eta lehenbailehen egin nahi bada ere momentuz arazotxo batzuk direla eta atzeratu egin da.



Zaila izango da momentuz Europar jasoten diren birziklapen kopuruetara iristea baina lehenengo pausuak eman ditugu eta hemendik



Edukiontzi hauez gain orain horiak jarriko dituzte

aurrera gure esku egongo da beira eta paperaz gain plastikoa, metala eta tetra brika ere beste zakarretatik bereiztu eta bere ontzira eramatea.

Aretxabaletan 1997 eta 1998 urteetan jasotako beira eta paper kopuruak:



• *Parrila espezialitate*

GOYARAN ERRETEGIA

Solohaundi-8 ARETXABALETAN ☎ 943 79 68 57

DOIKALSE
Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

Jauregi Okindegia


Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta

Adolfo Etxebarria

Eako zinegotzia

Herriaren alde lan egin nahiak bultzatu zuen EA alderditik alkategai gisa aurkeztera. Udaletxean lau urte egon ostean pozik doa herriaren alde lan egin duela-koan baina sakrifizio handia dela dio eta gazteen txanda iritsi omen da bere ustean.

Zinegotzi artean errespetua eta giro ona nagusitu diren legealdi honi agurra eman nahi izan dio.



- Zein izan da zure lana Udaletxean?

- Nire zereginetik bi atal dituztela esango nuke. Batetik, alkate orde gisa, alkatea falta denean bere betebeharrak betetzea eta bestetik garapen ekonomiko arduraduna izanik, herrian enplegu eta garapena lortzen ahalegintzea.

- Zerk bultzatu zintuen zinegotzi gisa aurkeztera?

- Bere garaian zinegotzi izateko proposamena luzatu zidaten, zinegotzi independenteak EAren programarekin joateko asmoa zegoela esanaz. Hori ikusita, eta lau urtetan herriaren alde lan egiteko asmoarekin onartu egin nuen.

- Nola baloratuko zenituzke lau urte hauek?

- Orokorrean positiboak izan dira esango nuke, bai lehenengo zatian alderdi guztiok Gobernu Batzordea osatzen genuenean, baita orain ere. Beti egon da alderdien artean adostasuna gaiak, errespetu handiz, aurrera eramanez ahal izateko. Hala ere zaila da helburu guztiak aurrera eramatea, lau urte berehala pasatzen baitira eta nahiz eta gogoia egon beti gelditzen dira bukatu gabeko gauzak.

- Lortutako zerk ematen dizu pozik haundiena?

- Nire eginkizunik nagusia lanpostuak sortzea izan da. Horretarako langabezia dagoen jendearentzat formazio zikloak jarri ziren martxan Aretxabaletako Institutuan. Torneru, fresista edo errektifikadore kurtso hauek eman ahal izateko udaletxeak inbertsio handia egin du makina eta teknologia aurreratuenak jarriz. Bi urtetan 20

lagun inguruk lanpostua eskuratu du eta hori oso pozgarria da. Lehenengo aldia da udaletxeak enpresen sorrera zuzenki bultzatzen duena eta bere emaitzak jasotzen ere hasi da, 1998an sortu zen mekanizazioko enpresa berri batek gaur jadanik 10 langile-bazkide ditu eta etorkizunean 50 postu izatera iritsi daitekela uste da.

- Gure herrian alderdiak esandakoa jarraitu behar da edo bakarrik herriaren onari begiratzen zaio?

- Legealdi honetan inoiz baino politika gutxiago egin dela udaletxean uste dut, asko independenteak garelako seguruako. Horrek, orokorrean, alderdien gaintetik herriaren aldeko interesak defendatu eta bere alde lan egitea ekarri du.

- Aldaketa handia suposatu du zure bizitzan zinegotzi izateak?

- Bai, egun guztirako lotu egiten duelako, etxe koentzat astirik izan gabe. Alde handia dago bakoitzaren lanaren arabera, baina lanean ordu asko sartu behar eta gainera udaletxeari ere denbora eskeini beharra sakrifizio handia da.


- Hurrengo legealdirako aurkezteko asmorik baduzu?

- Ez, nire konpromezua bete dut eta atzetik datozen gazteak ni baino hobeto prestatuta daudela uste dut. Gainera, beste batzuei lekua uztea komeni da.

- Hurrengo hauteskundeetan zer aterako dela uste duzu?

- Ez dakit zer erabaki hartuko duten alderdiek bai goi mailan, bai herri mailan, baina nik, egiten dutena garbi egin dezatela eskatuko nieke, herritarrek nor eta zergatik apoiatzen duten jakin dezaten.

“Nire eginkizunik nagusia lanpostuak sortzea izan da”

OPEL 




Garaje Talleres Norte, s.l.
Zerbitzu ofiziala

*Marka guztien konponketak
egiten dira*

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tfnoa: 943 79 62 65 / Fax: 943 77 16 20

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE



**“Jakina,
errekadutako
poltsa hartuta
hipermerkatura
joatea gaur ez
zaio inori burutik
pasatu be egiten”**

Plastikoaren erreinua

Azkenaldian paper, pila eta beira erreziklatzeko nahiko jarrera ona dugula esango nuke, nahiz eta askotan ahaztu egiten zaigun erabiltzen ditugun orriek alde bi dituztela eta erreziklatu aurretik biak erabil ditzakegula. Ikasi duguna baino gehiago da, hala be, ikasteko duguna.

Hipermerkatu haundietara ez naiz sarriegi joaten. Joaten naizeanean, baina, ernegetan egoten naiz gehienetan. Ernegatu eragiten didana ez da bakarrik zenbaterainoko kontsumismoa eta erosi beharra daukagun ikustea; zelan erosten dugun be ikustekoa izaten da.

Aparkalekura gerturatu orduko plastikozko poltsaz betetako karruekin ikusten da jendea. Hipermerkatuek, gainera, poltsa horiek 'erreziklatuz' euren burua zuritzen edo dute. Batzuek egiten duten moduan poltsako duroa kobratuko balute denek, gutxiago hartuko genituzke, eta ez legoke erreziklatzen be lanik. Erositakoak sartzeko kartoizko kaxak, berriz (gero paperekin batera erreziklatzen direnak), gura adina egoten dira olio, ardao eta abarren inguruan. Jakina, errekadutako poltsa hartuta hipermerkatura joatea gaur ez zaio inori burutik pasatu be egiten. Gero zakarretara joango diren

zenbat eta zenbat poltsa eramaten ete dugu frutarekin be! Aguakate bat, meloi bat eta kalabazin bat hartzeko be pisatu aurretik poltsa banatan sartzten ditugu; pisatu eta azalean pegatina ipini besterik ez dutenean.

Bandeja zuriak, berriz, jaun eta jabe dira produktu freskoen erreinuan. Salmenta azkartzeko (eta higiena hobetzeko edo) bandejatan ipinita dauden okela eta arrainetatik hasi eta gauzarik zentzunbakoetaraino; esadazue, bestela, zertarako behar dituzten bandejak baba gorriek, azenarioek, sagarrek, laranjek... Larriena da, gainera, gauza batzuk bandeja dontsu barik erosterik ez dagoela horrelako lekuetan: salda egiteko hazurrak esaterako (bandejek ez dakit zenbat balio duten, baina hazurrek hamar-hogeia duro).

Jabetzen hasi beharko dugu erabilitako ontziak erreziklatzea bezain inportantea dela erabili beharrik ez sortzea edota ondo aprobetxatzea. Bide batez, bada ordua, abendutik behintzat Kanpazar-bideko zabortegian pilaturik dauden edukiontzi laruak bailaran ezartzeko. Poteteria gutzia erreziklatuaz kontzientzia trankiltzea behintzat lortuko ahal dugu aurrerantzean!

Ane Loidi Garitano

M
MEMESA

Industri hornidurak

Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi,1
☎ 943 79 71 69

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 943 79 23 53
ARETXABALETA

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABALETA

Etxeko obrak, nondik hasi?

Aurtengo udaberrian sukaldea berriztu, leihoak aldatu edo gela bat haunditu nahi eta horma bat botatzea erabaki duzu. Norbaitek, inori ezer esan gabe, bere etxean nahi duena egin dezakeela pentsatu badu, oker dabil, herritar guztiok eskubideez gain betebeharrak batzuk baititugu.

Batzuetan ezjakintasanak eta hurrengoan jakin nahi ezak nahigabe bat baino gehiago sortarazi dakiguke, beraz, adi egon gaitezen udaletxeko berri eta araei.

G ainean dugu udaberria eta jende ugari eguraldiaren hobekuntza aprobeztatzen du etxeko obra txikiak egiteko, bainugela konpondu, sukaldea txukundu edo leihoak aldatzeko.

Obra bat, ordea, nahiz eta oso txikia izan, ez da edozein modutan

egiten, bere prosesua du, errespetatu eta bete behar dena.

AURREKONTU ESKAERA

Edozein lanetan sartu aurretik, ez dago esan beharrik lehenengo obra horren gutxi gora beherako kostua behintzat jakin behar dela, nolako gastua izango den jakitea ezinbestekoa baita. Horretarako aurrekontuak eskatu ohi zaizkie etxeko lanetan parte hartu behar duten guztiei: igeltsero, arantz, elektrizis-

ta... eta bati baino gehiagori eskatuz gero hobe, prezioak konparatu eta aukeraketa on bat egin ahal izateko.

Erabakia hartua dagoenean langileei deitu eta lanak has daitezkeela pentsatu arren oraindik xehetasun txiki baina garrantzitsu bat falta da betetzeko, udaletxean baimena eska-

tzea hain zuzen.

UDALETXEKO BAIMENA

Baimena eskatzea ez da batere zaila; udaletxeko leihatilan baimen eskaera jaso, bete eta etxean egin nahi diren lanen aurrekontuarekin batera berriz udaletxera eraman behar da. Ondoren sarreran daudenek hirigintza sailera eramaten dituzte eskaera guzti hauek, bertan aztertu eta erabakia hartzeko.

Olaia Etxenausia hirigintza teknikariaren esanetan orokorrean herritarrek badakite udaletxean baimena eskatu beharra dagoela

AURREKONTUAK

• Sukaldea

Igeltseritza	1.100.000 pta
Iturgintza	173.000 pta.
Eskaiola	63.000 pta.
Sukaldea hornitzea	1.147.150 pta.

• Komuna

Iturgintza	44.000 pta.
Eskaiola	24.000 pta.
Hornitzea	445.000 pta.

• Gasa

Teknikoaren lana	42.000 pta.
Galdara	200.000 pta.
Hornikuntza	50.500 pta.
Instalazioa	45.000 pta.

• Instalazio elektrikoa

300.000 pta.

• Leihoak

Sukaldea	104.000 pta.
Logela	61.680 pta.

Aurrekontu hauek gutxi gora beherakoak dira eta BEZ-a ez da sartu bertan.



Aurrekontuak bati baino gehiagori eskatzea komeni izaten da

Udaletxean ezarritako gutxienerako aurrekontuak:

Udaletxean aurkeztutako aurrekontuak honako hauek baino txikiagoak badira tarifak ezartzeko orduan ondorengo kopuruak hartuko dira kontutan.

Etxeko obra txikientzat:

- | | |
|------------------------|---------------------------|
| • Kanpoko arotzgintza | 60.000 pta/m ² |
| • Bainugela konpontzea | 550.000 pta. |
| • Sukaldea konpontzea | 500.000 pta. |

Tarifak:

Aurkeztutako aurrekontuei edo udaletxean ezarritako gutxienerako aurrekontuei ezarri beharreko tarifak.

Berrikuntza eta mantenimendu obrentzat:

- | | |
|--|----|
| • Nekazal, industri, komertzio edo lanbide liberalen eraikuntzak | %5 |
| • Bizitzeko eraikuntzak | %4 |

Gasasartzea:

- | | |
|------------------------|-----------|
| • Berria jartea | 1000 pta. |
| • Instalazioa aldatzea | 500 pta. |

“baimen eskaera ugari jasoten ditugu, baina oraindik ezjakinean den jendea ere egon daiteke, batzuk ezjakinean eta beste batzuk jakin nahi ezean. Orokorrean, ordea, Aretxabaletan etxeko lanei dagozkien araudiak betetzen direla esan dezaket”.

Baimen eskaera hauek nahiz norberaren etxean, nahiz komunitate mailan egin behar diren lan guztientzat eskatu behar dira. “Baimen eskaerak ez dira dirua kobratzearen bakarrik egiten, batzuek horrela pentsatu arren, udaletxeak non eta nolako obrak burutzen ari diren jakin eta zaindu beharra du, ezin daitekeelako edozer gauza, edozein modutan egin. Suso txiki batzuk ere egon izan dira, leihoak aldatzen egon eta zerbait erortzea kalera adibidez, horrelakoetan baimena eskatuta badago udaletxearen seguruak egiten dira kargu”.

HIRIGINTZAK BAIMEN EMATEA

Eskaera guztiak, Gobernu Batzordera joan aurretik, hirigintza sailean aztertzen dira. Lehenengo aurkeztutako aurrekontua egin nahi diren obrekin bat datorren begiratzen da, sarritan jendeak aurrekontu askoz txikiagoa eramaten

baitu. “Badakigu udaletxean aurkeztu diren aurrekontu gehien-

“Badakigu udaletxean aurkeztu diren aurrekontu gehientsuenak ez direla errealak”

tsuenak ez direla errealak, horregatik, aurrekontu minimo batzuk ezarri ziren” dio Olaiak. Aurkeztutako aurrekontuak gutxienerako hauetara heltzen ez direnean, hauek hartzen dira erreferentziatzat eta hauen ara-

bera aplikatzen dira ordaindu beharreko tarifak. Gutxienerako hauen gainetik badaude, berriz, ez, orduan ekarritako aurrekontuaz atzeratzen dira tarifak.

Fatxadan egin nahi den lana bada, berriz, egin nahi diren aldaketak zehatzago aztertzen dira kanpoko itxura ezin baita edozein modutan aldatu. Etxebizitza beraren eta albokoaren ezaugarriak ikusi eta guztiz ezberdina den zerbait egin ez dadin zaintzen da, batez ere, toldoa jarri, leihoak aldatu edo fatxada margotzea nahi bada.

“Baimen eskaerok osteguna baino lehen ekartzea komeni izaten da, presa badute behintzat, hirigintza batzordea ostegunetan biltzen baita eta ondoren Gobernu Batzordea astelehenean” dio Olaiak. Hala ere jendeak gehiengotan udaletxeko tramitazioa azken unerako uzten du eta eskaera egina egon arren baimena eman aurretik jadanik obretan hasten da.

FAKTURAK AURKEZTU BEHARRA

Kasu batzuetan, baimen eskaeraz, ordea, ez da bukatzen udaletxera eramane behar den paper kontua. Aurkeztutako aurrekontua, 500.000 pta. tik gorakoa bada (BEZa kontutan hartu gabe) etxeko lanak amaitu ostean likidazio bat aurkeztu behar da zein obra burutu den eta zenbatekoa izan den



Baimena izatea beharrezkoa da kalean kontenedorea jarteko

zehaztuz. Baimena eskatu zenean baino obra txikiagoa egin bada tarifaren diru zati bat itzuli egiten da, haundiagoa izan bada, berriz, gehiago ordaindu behar da.

ARAUDIA BETEARAZTEA

Obrak behar bezala burutzen ari diren eta udaletxeko baimena baduten frogatzeaz arduratzen direnak udaltzainak dira. Hirigintza sailetik, zeini eman zaizkien baimenak pasatzen dizkiete eta horren arabera badakite non atentzinoa deitu eta non ez. "Behin baino gehiagotan jendeak, jakinda ere, ez du baimenik eskatzen, horrela inor eske joan ezean dirutxo hori aurreratzeko asmoz. Baimena eskatzera joatean, berriz, ez jakinarena egin eta orduantxe joango direla erantzuten dute" dio Alberto Cillaurren udaltzainak.

Lanak burutzen ari diren heinean fatxadaren itxura ez dela errespetatzen ikusiz gero, udaltzainek abisua hirigintzara pasatzen dute eta haiek dira jabearekin kontaktuan jartzen direnak. Obrak behin bukatuta daudenean zailagoa da hau betearaztea eta ordenantzaren arabera egindakoa apurtu eta berriz egitera behartuta egon arren normalean ez da hain neurri gogo-

rrik hartzen.

KOMUNITATEKO LANAK

Azken aldian baimen eskaera gehienak, leihoak aldatzekoetz gain, komunitate mailako lanak egiteko izan dira atariak konpondu, fatxadak margotu... Kasu honetan baimena eskatzea nahitaezkoa bada ere, udaletxeak lanen berri izan dezan, tarifak ordaintzetik libre daude. "Ez bakarrik tarifetatik libre, 95eko dekretu baten arabera fatxaden txukuntze eta hobekuntza lanetarako dirulaguntza txiki batzuk ere ematen dira. 10 urtetik gorako etxebizitzentzat fa-



Baimena baduten frogatzeaz udaltzainak arduratzen dira

"Azken aldian baimen eskaera gehien komunitate mailako lanak egiteko izan dira"

txadaren metro karratuko 100 pta. ematen da" dio Olaiak.

Komunitateko lanak burutzeko orduan etxebizitzako kide guztiak ados jartea izaten da arazo nagusienetakoa. Udaletxeak gainera, ezin du baimenik eman adostasunik ez badago. Orain, ordea, ez da eskatzen guztiak bat etortzea, %80 ados egonez gero aurrera eraman daitezke lanok.

BONIFIKAZIOAK

Konpondu edo lanen bat egin nahi den etxea herriko alde historikoan aurkitzen bada horrek bonifikazio bat jasotzeko aukera du. Gure herrian Durana kalea, Herriko plaza eta Bedarreta kaleko etxe batzuk egongo lirateke kasu honetan, hauek tarifen %10 besterik ez dute ordaindu behar. Nekazal inguruko eraikuntzen obrek ere %90eko bonifikazioa dute beti ere nekazaritza edo abeltzaintzatik bizi direla ziurtatuz gero.

Argi geratu da baimena eskatzea ez dela beste munduko lana eta bai herritar guztion betebeharrak, beraz, geure eskubideak aldarrikatzeaz gain, ez gaitezen betebeharrak betetzeaz ahaztu.

Tarifa ordainketatik libre

Ondorengo bi kasuak udaletxeak ezarritako tarifak ordaintzetik libre geratu arren, nahitaezkoa da baimena eskatzea.

- Herriko festak direla eta burutuko diren apainketak.
- Eraikuntzetako obrak, hauek komunitateko obra bezala burutzen badira:
 - Teilatua, honen estruktura ukitzen ez bada.
 - Fatxadak.
 - Saneamendu eta hornikuntzak
 - Atariak.

Bonifikazioak

- Berrikuntza obrak %90ekoa
 - Berritu nahi diren eraikuntza hauek herriko Alde Historikoan egon beharko dira (Durana, Herriko plaza eta Bedarreta kaleetako etxe batzuk)
 - Isolatutako berrikuntza obrak %50ekoa
 - Nekazal inguruko eraikuntzen obrak %90ekoa
- Eskaria egiten duen familiak bere diru sarrera bakarria nekazaritza edo abeltzaintzatik datorrena dela ziurtatu beharko du.



Andoni eta Fran Miguelek EHU ordezkatuko dute Valentzian

Andoni eta Fran Miguel estatuko xake txapelketara

Apirileko azken astean Valentzian jokatu den unibertsitate mailako txapelketara joango dira

Andoni eta Fran Miguel birkiek xakean ondo baino hobeto aritzen direla erakutsi digute berriro ere. Espainiar estatuko unibertsitate mailako txapelketa jokatzeko klasi-fikatu dira biak. Fran Euskadiko eta Gipuzkoako unibertsitateko txapel-duna izan da aurten eta bere anaia Andoni, berriz, Bizkaiako unibertsitatekoa. Honez gain Euskadikoan hirugarren sailkatu da.

Franez aukera haundia

Apirileko azkenengo astean Valentziara abiatuko dira Fran eta Andoni beste hiru ordezkariarekin batera, bertan jokatu baita Estatuko unibertsitate mailako txapelketa. Andonik aurrean ibiltzea ez dela batere erraza izango adierazi digu,

bertan maila altua izaten baita. "UNEDetik ordezkari kopuru haundia egoten da eta berauek eta Kataluniarrak dira xake jokalarionenak". Dena dela, bere anaia Franek goian ibiltzeko aukera haundiak dituela aitortu digu. Horretaz gain, Andonirentzat oso positiboa da bere anaia eta beste hiru lagunekin batera Euskadiko unibertsitatea Espainian ordezkatzea.

Donostiako Open-a

Estatuko txapelketa ez da bakarra izango ordea. Aste Santuan Fran eta Aitor Alkaidek Donostiako xake Openean hartuko dute parte. Esan beharra dago, Fran txapelketa hau irabazitakoa dela lehenago ere.

Pala eta eskuzko pilota txapelketak aurrera

Pala eta eskuz binakako pilota txapelketan bi ihardunaldi jokatu ondoren, dagoeneko bikote batzuk klasi-fikazioaren puntan ditugu. Eskupilota partidak Iturrigorri frontoian jokatzen dira zapatu goizetan eta bertan 14 bikote ari dira leihan, zazpiko bi taldetan banaturik. A taldean Eneko Iriarte eta Gorka Gabilondo ditugu aurrenengo postuan; B taldean, Egoitz Garciaetxabe eta Aitor Ziardegi bikotea eta Joseba Larrinagak eta Jesus Lonbidek osatzen dutena parekatuta daude. Palan ere giro bikaina izaten da zapatu arratsaldetan kiroletxean. Kasu honetan ere bi taldetan banatuta daude izena emandako 10 bikoteak. A taldean Jon Alberdi eta Iñigo Agirrebeña bikote bergararra dugu lehen eta B taldean, berriz, Roberto Agirre eta Mikel Uribebebarria.

Eskolarteko ibilaldi neurtua

Gipuzkoako mendizale federakundeak, Murruxo M.E.ekin batera, eskolarteko XII. ibilaldi neurtua antolatu du datorren domekarako, hilak 14rako. Gipuzkoako eskoletako eta inguruko herrietako neska-mutiko ugari hurbilduko da egun honetan gurera. Ibilaldia Urkuluko urtegiaren hasiko da goizeko 8,30etatik 9etara bitartean. Ondoren, Ugazteiraino igo eta Urrexolatik behera jeitsiko da. Ibilaldian zehar hainbat kontrolgune pasatu beharko dituzte partehartzaileek eta bukaeran guztiek diploma bana jasoko dute.

ARGAZKI

UrKiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79

Jose Luis Eraña

Gimnasia terapeutikoa martxan

Kiroletxean gimnasia modalitate berria jarri nahi da martxan, gimnasia terapeutikoa, hain zuzen. Beronen helburua, lordosis, cifosis, eskoliosis eta lunbagia erako patologiak dituzten pertsonei gimnasia egokia eskaintzea da, minak gutxitu edo arazoak hobetu ahal izateko.


Modalitate honen berri Jose Luis Erañak, Kiroletek enpresako kideak, eskaini digu. Jose Luisek kiroletxean gimnasia ematen dihardu gaur egun.

• Nori zuzenduta dago gimnasia terapeutikoa?

Lordosis, sifosis, eskoliosis eta lunbagia erako patologiak dituztenei zuzenduta dago. Bizkar aldeko patologiak dira guztiak, eta gizartean gero eta gehiago ematen direnak. Lordosis-a emakumeek izaten dute gehienbat. Gerrialdean duten gehiegizko okerdura da. Cifosis goialdeko konkordura da. Ez du arazo haundirik ematen; gehienbat estetikoa da. Eskoliosis, bizkarra atzetik begiratzuz gero, bizkar hezurak s itxura duenean da. Lunbagia, bestalde, gerrialdeko mina da.

• Gaur egungo gizartean zein neurritan ematen dira patologia hauek?

Lehen adin batetik aurrerako pertsoneen arazoa zela uste bazen ere, gaur egun 25 urtetik gora sor daitezkeen patologiak dira. Gizarteak daraman erritmoak, stressak, lan asko egiteak, ohitura txarrak... patologia hauek gero eta adin gazteagoetan eta samurrago hastea dakarte.



“Bizkarreko arazoak dituen pertsona batek segituan igarriko du hobekuntza”

• Zer eskatzen da klaseetan parte hartu ahal izateko?

Tratamendu medikoa denez, eta klaseak fisioterapeuta batek eman behar dituzenez, txosten medikoa beharrezkoa da. Horrela monitoreak arazo zehatzaren berri izango du eta pertsonari dagozkion ariketak gomendatuko dizkio.

• Lehen aldiz emango da kiroletxean?

Bai, Aretxabaletan bai. Iaz Arra-

saten ematen hasi ginen eta esperientzia ona izan zela ikusirik, nik uste dut Aretxabaletan ere arrakasata izango duela. Momentuz hiru lagun apuntatu dira, baina gainontzeko herritarrek ere atea zabalik dituzte.

• Gimnasia terapeutikoa praktikatzean hobekuntza igarriko du pertsonak?

Bai, segituan gainera. Egutero luzatze ariketa batzuk eginda bakarrik asko hobetzen da. Hori bai, nire ustez ariketa fisikoa horrelako patologiak aurreikusteko izan beharko lirateke. Baina, zoritxarrez, kasu gehienetan arazoak sortu ostean egiten da.

• Gimnasia, orokorrean hartuta, jende gehiagok egin beharko lukeela uste duzu?

Bai, herri osoa ikusi nahi nuke gimnasia egiten. Kiroletxera etorri eta bakoitzari dagokion ariketa gomendatzea gustatuko litzaidake.

• Kiroletxeko gimnasia eraberritu ondoren, zer moduz gelditu da?


Makina pare bat falta diren arren, nahiko ondo dagoela esango nuke. Baina nire iritziz begirale bat egon beharko litzateke bertan, gimnasia erabiltzen duenak zein ariketa egin eta nola egin jakin dezan. Horretaz gain makina baikotza zertarako den jakitea ere garrantzitsua da.

• Eta bukatzeko Jose Luis, zein da kirol osotuenaren zure iritziz?

Igeriketa eta bizikleta kirol osotuenak dira. Igeriketan esaterako gorputzeko atal guztiak lantzen dira eta bizkarreko arazoak dituztenentzat oso gomendagarria da.



Plastikozko ontziak



Latak



Tetrabrikak



...zure esku dago

"Buertaka - Buertaka Birziklatuz"

Datozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

Eta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zaborteziak ere denbora luzegorako izango ditugu.

Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu
Guztion mesedetan izango da





Mutiko zintzoenei saria

Mutikote dotore eta zintzo hauek agertzen diren erretratu zahar hau 1952 urte ingurukoa da. Garai hartan parrokoak mutiko taldeak egin eta txapelketak antolatzen zituen elizkizunetara joateagatik puntuak emanaz. Talde honek, 1952. urtean eguneko meza goizetan eta igandeko bezperak entzuteagatik lehenengo postua lortu zuten eta saria Donostiara irteera izan zen. Argazkia parrokoak berak, Don Angel Garmendiak, Maltzagako tren geltokian atera zien.

Zutik, ezkerretik eskumara: Luis M^a Zubizarreta, Luis Unzurrunzaga, Alberto Arcauz, Ignacio Uribetxebarria (kapitaina), Juan M^a Gorostiza, Joxe M^a Axpe.

Belauniko: Jose Ignacio Arenaza, Ignacio Lopez de Uralde, Juan Ramon Zubia, Jose Antonio Elortondo, Juan Antonio Iturbe.

Pasa den astean Alemaniatik zetorren eskutitz bat jaso genuen. Bertan zer egongo eta Luis Zubizarretak bidalitako erretratu zahar eta polit hau informazio eta guzti. Benetan eskertzekoa da gurekin gogoratu eta hain urrundik bidali izana.

Argazkia eta informazioa: Luis Zubizarreta

Herriko
plazan
ARTANO

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

LEIBAR
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 -
Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABAETA



Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8
ARETXABAETA
☎ 943 79 94 15

OSKAR
GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABAETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaeta

Arientza auzoa
Aretxabaeta
Tfnoa: 943 79 17 51
Mitartegorri
Gatetxea





LANA

◆ Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira jabetxe baterako. Tfnoa: 945 44 50 86

◆ Esperientziadun neska bat ileapaindegian lan egiteko prest. Tfnoa: 943 79 72 77

◆ Matematika, fisika, kimika eta marrazketako klaseak ematen dira Arrasateko San Andres auzoan. Tfnoa: 943 77 08 02

◆ Aretxabaletan 2. LOGSEko (giza-zientziak) matematikako klaseak hartuko lirateke. Tfnoa: 943 79 23 77

◆ Esperientzia eta informedun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Ordutegia goizeko 11etatik 3etara eta arratsaldeko 8etatik 10etara. Tfnoa: 608 97 49 72 (Rosa).

◆ Langaiko lan eskaintza

Kalitate saileko arduraduna.
Arabar lautada. Erref. 16888/3.



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.

Peoi espezialista. Elorrio.
Erref. 16528/5.

Autobus gidaria. Donostia.
Erref. 16978/2.

Zaintzailea. Gasteiz. 17113/3.



DENETARIK

◆ Aretxabaletan taberna alokagai. Tfnoa: 943 79 01 47 (Jose).

◆ SS-AB matrikuladun Renault supercinco zuria salgai, oso egoera onean. 943 79 68 75 telefono zenbakira deitu.

◆ Bugno bizikleta bat salgai dago. Tfnoa: 943 77 00 95 (Jon)



ETXEBIZITZA

◆ 17 m²ko garajea salgai Murubiden. Prezioa 1.300.000 pta. Tfnoa: 943 79 74 48



LEHIAKETAK

◆ **Beasaingo IV. argazki lehiaketa.** Beasaingo Jesus Larrañaga Kultur Elkarteak IV. argazki lehiaketa antolatu du. Bertan profesionala ez den edonork parte har dezake eta gaia libre da. Zuri beltzean hiru argazki eta koloretan beste hiru aurkeztu beharko dira. Gutxieneko neurria 18x24 izango da eta gehienekoa 30x40, kartoiak indarturik joan beharko direlarik. Lanok aurkezteko azken eguna martxoaren 18a da eta sariak martxoaren 27an eguerdiko 12etan banatuko dira Kultur Elkartean.

Sariak: 1.-18.000 pta. eta plaka.
2.- 12.000 pta.
3.- 8.000 pta.

Helbidea: Jesus Larrañaga Kultur Elkartea Oriako Pasealekua, 18 Beasain.



ARKO

ARKO • Arrasate Komunikabideak

Publizitateko teknikaria

Baldintzak:

- Euskara ondo menperatzea.
- Harremanetarako erraztasuna izatea.
- Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

Curriculumak martxoaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, ARKOren egoitzan

Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE
Tel: 943 71 23 90 • Faxe: 943 71 23 96

Baloratuko da:

- Publizitate, Marketing edo Enpresa Zientzietan ikasketak izatea.
- Herri Komunikabideak ezagutzea.
- Merkataritza agente bezala esperientzia izatea.
- Arrasate ezagutzea.
- Testu prozesatzaileak eta datu baseak erabiltzea.
- Autoa edukitzea.

Negu hotzak, berri motza



M. J. Arzak

Aurtengoan, udaberiaren atarian gauden honetan, Kurtzebarriko maldak zuri-zuri eginda ikusteko aukera izan dugu. Aurtengo neguak, negu giroa ekarri digu. Nire sudur puntak ere igarri du aurtengo hotza. Baina hala eta guztiz ere, poztekoa da goizean goiz jeiki eta Kurtzebarri zuriz jantzita ikustea.

Felix eta **Alberto Iñurrategik**, ordea, ez dut uste hotzari inungo beldurrik diotenik. Izan ere, bederatzi zortzi milakoren ostean, Apirila aldera ekingo baitiote hurrengo espedizioari. Oraingoan Himalayan kokaturiko **Nanga Parbat** izeneko mendira joateko asmoa dute. Nirea bezalako termometro sensiblea balute, 8.125 metrotako mendi honi aurre egin aurretik hirubat aldiz pentsatu beharko lukete.

Kirolaren ariarekin jarraituz, futbola dut orain mintzagai. **J.J. Barkero**, Errealeko jokalaria atxa-

baltarra, 20 urte azpiko espainiar selekzioarekin Nigeriara joango da apirilaren 3 eta 24 bitartean, jubenil mailako mundiala jokatzen. Ea, bada, bere urrezko ezkerrekin ostiko onak ematen dizkion baloiari!

Martxoaren 8an ere egun berezia izan genuen emakumeok. Egun honetan, urtero lez, emakumearen naziarteko eguna ospatu baitzen. Aukera polita izan genuen, kalera atera eta geldik egoteko jaiok ez garela erakusteko.

Miriam Urkia atxabaltarra ere, ez da geldik egotekoa. Izan ere aurreko batean ETBko Hitzaro saioan agertu baitzen UZEIko Melin proiektuaren berri ematen. Proiektu honen bidez, erabilera urriko lau hizkuntzek (euskara, katalana, irlandako gaelikoa eta galeseko gaelikoa) interneten bere lekutxoia izan dezaten lortu nahi da. Erabilera urriko hizkuntzak diren arren, munduko edozein txokotara heltzeko gai izango dira.

Korrika kulturala ere heldu da Atxabaltara. Honen adibide, joan zen domekan izandako laburmetraien gaua dugu. **Laugarren Galeriatik, Bernar** eta **Txotx** laburmetraiak ikustera hurbildu zirenek, euskal laburmetraigintzak etorkizun oparoa duela konturatzeko parada izan zuten. Laburmetraia gutxi egiten diren arren, antza, kalitatezkoak dira hauek, sari ugari jaso baituzte. Akaso ni neu ere mundillo honetan hasiz gero? zeinek daki.

Liburutegiko txokoa



Urregilearen orduak

Pako Aristi
Erein, 1998
Narratiba; 13

Aristiren azken nobela duzue honako hau. Fermin herri txiki bateko tabernaria da eta goizean goiz zabaltzen du taberna; han aurkituko da Luisarekin, hiri haundian Pub batean lan egiten duen neskarekin. Hauek egun eta gau guztian zehar elkarrekin emaniko orduak beste istorio paralelo mordo bat daukate aldamenean, tartean, batak besteari kontatzen dizkieten kontakizun zaharrak.

Bi zatitan banatzen da nobela: lehena, herri txikian eta egunez Ferminen tabernan gertatzen dena, eta bigarrena, hirian eta gauz ematen dena. Batak betiko bizi-modu lasaia erakusten du eta besteak bizitza moder- noa. Haserako zatia erritmo geldoan agertzen bada ere, bigarrena bizi bizi joango da.

Azken batean gure bizimoduari buruzko erreflexioa egiten du Aristik, giza sentimenduak oso ongi azalduz berak ohikoa duen hizkera poetikoan.

Joseba Lopez de Armentia

MARTXOA
II
eguna

KAFE TERTULIA

Tril emakume taldeak, emakumearen eguna pasa dela eta, kafe-tertulia antolatu du. Pelikula bat ikusi eta ondoren puntu batzuk jarraituz elkarrizketa sortaraziko da. Lora-mendiko aretoan arratsaldeko 6ak inguruan izango da.

HITZALDIA

Kurtzebarri eskolako Guraso Eskolak "Zer egin behar dugu gurasook gure seme-alaben autoestima hobetzeko?" gaia aztertuko du Amaia Vazquez psikologoaren eskutik. Arratsaldeko 6,15etan Kurtzebarri eskolako liburutegian izango da.

12
egukotxa

ANTZERKIA

Zaborraren problematikaz ohartu eta laister jarriko den hirugarren edukiontzia zertarako azagutarazte du helburu antzerkiak. Panta Rhei taldeak Zabornautas antzerki lana eskeiniko du Aretxabaletako Herriko plazan arratsaldeko 5,30etan.

13
zapatua

ZIRKOA

Arratsaldeko 5etan kiroletxean zirkoa izango da.

**TXIRRINDULARI
LASTERKETAK**

Dorletako Ama Txirrindulari eskolako Fagor taldeko jubenilek lasterketa izango dute Arrasaten. JMA taldeko 2. urteko kadeteek, berriz, Beasainen izango dute eta 1. urtekoek hurrengo egunean Azpeitian.

14
domeka

IBILALDI NEURTUA

Gipuzkoako Mendizale Federakundeak, Murruxio M. E. arekin batera, antolatu du inguruko eskoletako gaztetxoentzat. Urkulu urtegian emango zaio hasiera goizeko 8,30-etatik 9ak bitartean.

MENDI IRTEERA

Zaraia Mendizale Taldeak Arlaban-Otzaurtera egingo du domeka honetako irteera.

**TXOTXONGILO
EMANALDIA**

Arrasateko Amaia antzokian Taun Taun taldearen "Txio txioka" txotxongilo emanaldia izango da arratsaldeko 5etan. Sarrera 300 pta.

KORRIKA KULTURALA

AEKk korrikako ekitaldien barruan korrika kulturala antolatu du. Hau dela eta, "Leihotikan" taldearen kontzertua izango da Ezkutun martxoaren 12an gaueko 10,30etan. Domekan, berriz, hilaren 14an, postulazioa egingo da Aretxabaletako kaleetan Korrikaren alde dirua batzeko. Ekintzek martxoaren 24an izango dute jarraipena, goizean korrika txikiaz eta ondoren arratsaldean musika, buruhaundiak eta Kakalardo antzerki taldearen antzezlanaz. Bukatzeko, martxoaren 25ean Korrika goizaldeko 4,40etan pasatuko da herritik eta ondoren txokolatadaz amaiera emango zaio udaletxe zaharrean.

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34
Mitarte, 16 • ARETXABALETA • Tfnoa: 943 79 32 34

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

943 71 20 02

ITURGINTZA

Jose Jabier Irure
URA, GASA ETA
KALEFAZIOA
Tfnoa: 943 79 07 34
943 79 31 87

CONSUM EROSKI

*Orain arraindegi
eta okindegi, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
ARETXABALETA

IKASTARROAK

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**



PSIKO-GORPUTZ INTEGRAZIOAREN TAILERRA

Arrasateko Yoga Elkarteak egun bateko tailerra antolatu du. Tailer honetan integrazioa landuz, gorputza, burua eta emozioak landuko dira Hatha-Yogaren bidez. Tailerra Arrasateko Jose Luis Iñarra 28, behean, martxoaren 20an izango da; goizean, 10etatik ordu bietara eta arratsaldean 4etatik 8-etara. Tailer emalea Encarna Méndez psikoterapeuta eta yoga-ko monitorea izango da eta koordinatzailea Maribel Gómez psikologo eta integrazioko psikoterapeuta. Encarnaren telefono zenbakiak 943 79 88 53 - 608 57 50 29 dira.

GIMNASIA TERAPEUTIKOA


Lordosis, cifosis, eskoliosis, lumbagia... erako patologiarekin bat duten pertsonentzat zuzenduta dago. Gimnasia saio honetan parte hartu ahal izateko, mediku txostena izan behar da eta urtean zehar partaide bakoitzaren mediku kontrolak egingo dira.

Taldeko partaidetza mugatua izango da. Beraz, lehenbailehen apuntatzea komeni da. Ikastaroa kiroletxean astearte eta ostegunetan emango da, 10:15etatik 11:15ra. Prezioa abonatuentzat 2.600 pta.-koa da eta 3.400 gainontzekoentzat.

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murrukixo M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 79 79 99
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Zer egin Atxabalta telebista ikusteko?



Jende askok oraindik ez du bere etxean Atxabalta telebista harrapatu.

Batzuk zerbait bai, baina oso gaizki ikusten dela diote, beste batzuk hori ere ez. Arazoa etxebizitza horietan antena kolektiboa egotetik dator. Beraz, zer egin daiteke ikusi ahal izateko?

Antenak jarri ohi dituen teknikariarekin hitzegin eta berak behar denaren berri emango dizue. Ez da gauza handia, ezta garestia ere. Gainera, komunitate mailan jarri behar denez, bizilagun bakoitzari tokatzen zaiona huskeria bat da. Zenbat eta azkarrago animatu jartzera, lehenago gozatu ahal izango duzue Atxabalta telebistarekin.

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11


Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 77 10 43
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 20 20
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



Nafarroako Zuñiga herrixkan jaioa da Alberto Perez Begi Ondo optikako jabea. Gaur egun Aretxabaletan bizi bada ere, astebukarero bere jaioterrira itzultzen da. Aretxabaleta bizitzeko herri lasaia eta atsegina dela uste du, baina ez ordea, hain gogoko duen bizikletan ibiltzeko.

- Noiz zabaldu zenuen Begi Ondo optika?
1988an, beraz, orain 11 urte.
- Zergatik Loramendin?
Lokalagatik.
- Nafarroakoa izanik, nola etorri zinen hona?

“Aretxabaletan bizi arren, asteburuero Nafarroara joaten naiz”

Lehengusua hemen nuelako etorri nintzen.

- Noiz joaten zara Nafarroara?
Asteburuero, familia bertan daukat eta.
- Non egin zenituen optika ikasketak?
Madrilen.
- Zuk zeuk betaurreko edo lentilarik erabiltzen duzu?
Ez, momentuz bista ona daukat.
- Baina erabili beharra izatekotan, zeintzuk erabiliko zenituzke?

Betaurrekoak erabiliko nituzkeela uste dut, erosotasunagatik. Betaurrekoek ez dute mantenimendurik eskatzen, lentilek, ostera, lan asko eskatzen dute.

- Zein betaurreko daude orain modan?
Montura bakoak. Baina orain pastazkoak datoz ostera ere.

- Herriko pisuek duten prezioaren inguruan zein iritzi duzu?
Herri batentzako oso garesti daudela uste dut. Udalak zeozer egin beharko luke.

- Etxeko zein lan egiten duzu?
Denak, baina plantxatzea ez zait baxterez gustatzen.

- Animalia bat?
Txakurra.
- Zein da esan baina egin ez duzun hori?
Euskara ikasi. Lau urtetan ikasten ibili eta gero utzi egin nuen. Badaukat ostera hasteko asmoa.
- Bideo zintako irudi bat edo argazki bat?
Bideo zintako irudia.
- Afizioak?
Bizikletan ibiltzea eta brikolajea.
- Mendikoa ala kaminoko bizikleta?

- Biak dauzkat.
- Noiz ibiltzen zara bizikletan?
Astebukaeretan eta astean zehar astia dudanean.
- Nork irabaziko du aurtengo futbol liga?

- Ez zait futbola gustatzen.
- Plater gustoko bat?
Denetik gustatzen zait, baina bat esatekotan zainzuri beteak aipatuko nituzke.

- Nolakoa da zure izakera bi berbatan esanda?
Ez nuke erantzuten jakingo.
- Aste Santurako asmorik bai?
Ume txikia daukagunez, ez dugu inora irtengo.

KOMIKIA

BALITZAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Nomina-
helbideratzea

30 urte baino
gutxiago badituzu
Gazte Nomina



NOMINA FESTA

Ongi etorri!

Zure nomina Euskadiko Kutxan helbideratzea jai bat da orain. Izan ere, hainbat abantaila berezi izango dituzu.

3 nominarainoko Aurrerakinak, 6 hileko epean itzultzeko moduan-eguztearen aurrean gustura hartzen da lasaialdi bat. Visa Clasica lehen urtean doan. 5000 pta.ko ekarpena doan Pentsio Plana irekitzeagatik. 10.000 eta 5.000 pta.ko Deskontu Txartelak Hipoteka Maileguak eta Mailegu Pertsonalak irekitzearen.

Eta askoz gehiago. Aholkularitza Fiskal eta Hipotekariorako Zerbitzuen laguntza ere izango duzu. Helbideratu zure nomina Euskadiko Kutxan eta goza ezazu Jaiaz. Jaso ezazu informazio zehatza Euskadiko Kutxaren edozein sukurtsaletan edo 901-333 444 zenbakian.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun
zuzena

Multi, Opción

auto fidagarri, seguru, dinamiko,
berritzaile, zabal, jostagarri eta,
nortasuneko bat nahi duzu.
eta aurkitu duzula uste duzunean,
focus agertzen da.


zeren eta zu zer bait
gehiagoren bila baitzabiltza

ford**focus** berria

“Erabiltzaile eta
Kontsumitzaileen
Erakundeak (OCU), “crash
test” delakoaren bitartez
egindako ikerketaren
arabera, Ford Focus-ek
puntuaziorik altuena
lortu du segurtasunean,
beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko
2.064. alean argitaratua

Audi A3 ****
Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
suzuki baleno **



zegoenarekin etsi beharrean zinenean, zerbait gehiago aurkitu duzu. gehiago, ford focus berriaren kanpo diseinua. eta barrukoa, zabalagoa, dena esku-eskura jartzen dizuna. gehiago, bai eta jokaera egonkor, zehatz eta zalu bai ere. bere 1.6ko (16v eta 100 ZP) aluminiozko motorrarekin, harritu egingo zaitu prestazioetan eta kontsumoan, eta gainera, gidariaren eta ondokoaren airbag-a dakarte guztiek. oraintxe ailegatu da ford**focus** berria, zure itxaropen-muga betiko aldatu duen autoa.

ford focus trend, 16v 100ZP, 2.000.000 pezeta (jendearentzako prezio gomendatua, lantak aparte))
informazioa eta proba:

Automóviles Mugarri
Araba Etorbidea, s/n
ARRASATE-MONDRAGON
Tel.: 943 79 75 64

